

# ZAZA

ZORROTZ MORROTZ

48. ZIKLIA, 2017ko AZAROA

## ARRATE JORGE

JUJITSUKO ESPAINIAKO JUNIOR TXAPELDUNA

ASKABIDE KULTUR ELKARTEA

**Allianz** 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea  
48013 Zorrotza

Tel. 946551773  
Sakelakoa. 691218922

E-mail: [valerio.merino@allianzmed.es](mailto:valerio.merino@allianzmed.es)



# %Orako MAILEGUA BASKE- PENSIONESEN AURREZTEKO

**AURREZTU,  
AHAL DUZU ETA.**

Irekitze eta kitapen-komisioa: %0. Finantzatze beharreko gutxieneko diru-kopurua: 2.400 €. Adibidea: 3.000 euroko mailegua, 12 hilabeterako eta hileroko 250 euroko kuota: Irekitze-komisioa %0, UTB %0 eta ITN %0. Zordundutako zenbateko osoa: 3.000 €. Baskepensiones Banakako BGAEren plan hauetara egindako ekarpenetarako: Baskepensiones 15, Baskepensiones 30, Baskepensiones 60 eta Baskepensiones Burtza Globala. Kanpainaren azken eguna: 2017/12/31.

Baskepensiones banakako BGAEa.  
Kutxabank SA Bazkide sustatzailea /  
Kutxabank Gestión IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.



Kutxabank, SA. Kile Nagusia, 30-32. 48009 Bilbo. IFK. 495453077. Bizkaiko Merkataritza. Enregistrazio inskribatuta. 5324 Tomoa. 0 Liburu. 01-58729 Orria. 1 Folio. 1 Inskripzio.



**...Imajinatzen duzu auzoa  
merkataritzarik gabe?**

# ESKAINTZARik ONENA ZORROTZatik IRTEN BARIK

**Berton  
kontsumitu**



# Auzoetxe berrirako aurrekontua eta Landa eraldatzeko plana

Dakizuenez, Zorrotza hobetzeko lanean, Auzo Elkartearen gai-zerrenda zabala eta ugaria da. Denbora luzez landu ditugun bi kontu garrantzitsuetan jarriko dugu arreta: Auzoetxe berri baterako aurrekontuen zati bat ezartzea lortu dugu. Era berean, hainbat zatitan egingo den "Landa" eremuaren eraldatze plan oso bat garatuko da denbora gutxi barru. Hobe berandu inoiz ez baino...

Beste aldetik, gogoan izan FEVE trenbidearen pasabideko zorigaitoko istripuaren ondoriozko bi auzokideen heriotzaren urteurrena hurbil dela. Ziur aski oroitzapen eta aldarrikapen ekitza bat egingo dugu. Beraz, adi egon deialdietara..

Borondatea, kemena era iraunkortasuna!

Hurrengora arte!



**Zorrotzako kultur aldizkaria**  
48. zenbakia. 2017ko azaroa

Argitaratzen du:  
**Zorrotzako Euskal Txokoa**

AEK euskaltegia  
**Zalbidea, 7 behea**  
48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

 [facebook.com/ZorrotzMorrotz](https://facebook.com/ZorrotzMorrotz)  
 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

**Koordinazioa:** Aitor Marín

**Diseinua eta maketazioa:**  
amc diseinua

**Erredakzioa:**

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Haizea Olleta
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila
- Lorna Yáñez

**Zuzenketak:** Iñigo

**Laguntzaileak:**

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saúl Kurto

**Inprimaketa:** Arin Graf



Zorrotzako kultur aldizkariak Bilboko udalaren dirulaguntza jasotzen du



## HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

**ZM** zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoko bat [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com) helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz



**EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK**



**ETXERA**

# GORA HERRIAI!

★ *independentzia!*  
**SOZIALISMOA!**



**ASKA BIDE**  
kultur elkartea  
**ZORROTZA**

# “Zorrotza 2007-2017” plan sozialaren balantzeari eta auzo-plan berri bat asmatzeari ekin dio Herri Mugimenduak

Azarotik otsailera barne mailako prozesu parte-hartzailea martxan jarri da EHUko Parte-Hartuz Institutuak eta IPES-ek lagunduta. Asmoa, auzo mugimendu guztien artean egoeraren diagnostiko kolektiboa eta epe erdiko auzo-plan berria diseinatzea litzateke.



Saúl Kurto

Auzo Mugimendua plan honen balantzearekin batera, aurrera begira jartzen ari da. Azaroan auzoko talde desberdinekin elkarrizketak hasi dira. Abenduan diagnostikoa zabalduko da; urtarrilean planaren ziriborroa zabaldu eta osatuko da, otsailean plana erabaki eta bukatzeko, martxoan martxan jartzen hasiko da. Hurrengo hilabeteetan, nola ez, prozesu horren berri izango dugu ZMen.

## 2007ko planaren sorrera

2005 eta 2006 urteak arazo desberdinengatik gogorrek izan ziren auzoarentzat (elkarbizitza, bortxaketak, proiektu inposatuak, ...). Instituzioei epe luzeko soluzioak eskatzen zitzaizkien eta haien erantzun eza ikusi on-

doren, 2007an Auzo Elkarteak eta Taldeen Koordinakundeak auzoko plan sozial integral propioa diseinatzea eta martxan jartzea erabaki zuten. Planaren funtsa nagusia epe motzeko beharrei erantzutea eta epe luzean Zorrotzako auzokideen bizi baldintzak hobetzea zen. Helburu orokorrak hauek ziren: elkarbizitza integratzailea lantzea, auzo protagonista eta aktiboa, komunitate sozialki koheSIONatua, bazterkerik gabeko auzoa eraikitzea, euskal kultura bultzatzea, auzo mugimendua indartzea, eta auzo-espazio duina izatea. Plan horrek lau aspektu-atal estrategiko zituen: sozio-ekonomia, azpiegitura-elkarbizitza, sozio-kulturala, eta hezkuntza-aisialdia. Horien barruan hamar lan ildo garatu ziren. Horrekin batera ZORROTZA BIZIRIK! leloa eta iruditegi kolektibo berria proposatu ziren, portuko ga-

rabia eta parkeko frontoia ikono gisa (auzoko izaera langile, borrokalaria eta alaia azpimarratuz). Ekainean Zorrotza Eguna egiten hasi zen. Auzoko taldeen arteko komunikazioa handitu zen. Eta azpiegitureei dagokienez, 5 puntuko lehenasunezko taula osatu zen, hau aldarrikatuz: FEVE geltokiaren lurperatzea, frontoia- ren estaltzea, Kultur etxe duina, haurreskola eta irisgarritasuna.

### 2017ko planaren balantzea.

Aurten plan horren amaieran gaude eta balantzea gazi-gozoa izan arren, balantzak alde positibora gehiago jotzen du. Gazia: oraindik auzoan elkarbizitza arazoak daude; oraindik bazterketa soziala dago; FEVE ez da luperatu oraindik... oro har gauza asko hobetu behar dira oraindik. Baina, bestalde, zenbait aurre-

rapausu eman dira (gozoa): frontoia estali da; frontoi atzeko auzo-lokalak lortu dira; haur eskola eta irisgarritasuna lortu dira; Auzo etxe berri baterako ikerketa eta aurre-proiektua egiten hasiko da; auzo dinamika indartsu mantendu da; auzo eragileetan belaunaldi- erreleboa ondo eman da; Auzo Mugimendua duela 10 urte baino indartsuago eta trinkoago dago.

Hori guztia, gainera, inplikazio soziala asko jaisten ari den krisi sozio-ekonomiko batean, eta horregatik bere balioa handiagoa da. Auzo Mugimendua oraindik planaren itxiera ofiziala egin behar duen arren, pertsona desberdinen iritzia aintzat hartuta, oro har, balorazio positiboa egiten da (gabezia asko egon izan diren arren).

## Abian dira Txinbotarrak auzoko konpartsak antolatutako musika-tailerrak

Igor Gutiérrez

Auzoko konpartsak antolatutako musika-tailerrak martxan dira urritik. Txistu, trikitixa, pandero, alboka, gitarra eta bateria dira aurrera ateraren ikastaroak. Proiektu berezia da Txinbotarrak plazaratu duena, auzotik eta auzoarentzat musikarien harrobia erakitzea helburu duena. Hartara, eskolengatik ez da dirurik eskatzen, bai ordea asistentzia eta auzoko jardueretan parte-hartzea. Guztira 40 partaide baino gehiagok izena eman dute eta laster kalera ateratzeko asmoa dute.



Restaurante  
**Arsenio**  
Pintxo askotarikoak  
Menu bereziak (enkarnez)  
Eguneko menua

Tfno. 94 497 10 03  
Hermógenes Rojo, 6  
48013 BILBAO

Regalos  
**Omega**  
oparidenda

Frai Juan 19  
Omega galeriak  
Zorrotza  
94 482 03 66

www.omegadetalles.com

cafe **txinbo**


Especialitateak:  
Tapak eta errazioak  
Kanapeak



Ábaro estrata, 10  
Tel. 94 608 85 74

## “Auzoka” komunitate zentro berria ireki da frontoiari atxikitako lokal berrietan

Igor Gutiérrez



Azkenean bai, frontoiari atxikitako lokalak ireki egin dira. Udalak beraien kudeaketa Jai Batzordearen eta Gure Lurra Elkartearen eskuetan utzi du, hitzarmenak sinatu eta gero. Akordioan aipatu erakundeok komunitate-zentroa osatzeko helburua adierazi dute, alegia, auzoan eragina izango duten ekimenak garatzeko espazioa. “Auzoka” aukeratu dute hura izendatzeko, auzo eta azoka hitz-jokoa baliatuz, zentroaren kokagunea dela-eta. Abenduaren 15ean inaugurazio jaia egingo da eta hurrengo astean atek zabalatzeko jardunaldiak egingo dira.

## Bertan behera Thricholomak antolatutako mikologi erakusketa

Zorrotz Morrotz

Azaroaren 4rako iragarrita zuten urtero Zorrotzako Thricholoma elkarteak antolatzen duen mikologi erakusketa. Zorritarrez, ez

ohikoa den euri faltagatik, aurreko egunetako bilketak alferrik izan ziren eta ez zen generorik biltzeko aukerarik izan. Espero dezagun datorren urterako eguraldia aldatzea eta purretiko mota asko ikusgai egotea.

## Auzokide eta merkatariek bat egin zuten XII. Merkatarien desfilean

Zorrotz Morrotz



Merkatariek eta auzokideak batu ziren azaroaren 4an Laguntasuna elkarteak antolatutako XII. Merkatarien Desfilean. 500 pertsona baino gehiago elkartu ziren Zorrotzako Kiroldegian auzoko merkataritzaren azken produktu eta eskaintzak ikusteko eta auzokide eta merkatarien lotura estua ospatzeko asmoz. Giro ederra borobiltzeko, bertaratuen artean 100 euroko 3 erosketa-bono zozkatu ziren. Zorionak sarituei!

Bilbao Dendak-ek “Bilbao nire aukera” iraillean aurkeztutako kanpainarekin ere bat egin du Laguntasunak, auzoko ekintza komertziala bultzatzeko asmoz.

## Abaro estrata

Kale hau Zorrozoiti bidean hasi eta Zorrotza Kastrexana errepidean amaitzen da, Parroko Vicente Zabala eta Untziola (Jon Urzelai) kaleak zeharkatzen. Bere garaian Bilboko itsasadarra eta Kadagua ibaiaren auzoko goiko partea lotzen zeban, Abandoko elizatea eta Barakaldoko mugaren alboan. Izena seguru asko euskaratik dator, edo "abe" (zuhaitza edo sasia) aldetik edo aberen bidea, zuhaitzetan gordelekue zan lekure.



Talleres Omega. 1963. urtea



**CAFÉ  
LAS NAVAS**

**Pintxo  
gozoak  
egunero**

Zorrotza Kastrexana  
errepidea 4



**Taramona**

**ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75  
Telefonoa: 94 442 44 68

**TAILERRAK ETA ZERBITZUAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 75  
Telefonoa: 94 442 17 12

**MADNESS KAFETEGIA**  
Elena eta Javier  
Zalbitza estrata, 5 - atzea  
ZORROTZA  
48013 BILBO



**MADNES**

Tel. 94 441 62 75

# “ Euskal Herrian edozein aitzakia ona da lagunekin edo auzokideekin ospatzeko eta konpartitzeko ”



## MARIA BARBOS

**Jatorria:** Resita (Errumania)

**Noiztik:** 2017ko urtarriletik

**Adina:** 44 urte

**Lanbidea:** Publizitate sortzailea

Pasa den urtarrilean gure auzora heldu berri zen Maria. Hilabete bat geroago bere ahizparekin Zorrotzako “La Viña de oro” taberna mitikoa birzabaltzeko aukera agertu zitzaion eta horri esker auzoko giroan murgiltzen hasi da.

**Testua:** Naroa Peña eta Zuriñe Vila

**Argazkiak:** Naroa Peña

### Noiz eta zergatik etorri zinen Zorrotzara?

2017ko urtarrilean etorri nintzen. Nire ahizpa hemen zegoenez berarekin denboraldi bat pasatzera etortzea erabaki nuen. Hasiera batean nire pentsamendua hilabete gutxi batzuetarako etortzea zen baina hilabete bat Zorrotzan nengoela “La Viña de oro” taberna birzabaltzeko aukera agertu zitzaigun. Hori dela eta, auzoan hasieran pentsatzen nuen denbora baino gehiago geratzea erabaki dut.

### Hemengo bizimoduari egokitzea gogorra egin zitzaizun?

Ez. Auzoko jendeak oso harrera ona egin dit. Heldu baino lehen, egia esanda, askoz

gogorragoa izango zela pentsatzen nuen. Ez nekien taberna aurrera atera ahal izango nuen, baina zortzi hilabete pasa dira taberna zabaldu nuenetik eta benetan poz-pozik nago jasotako harrerarengatik.

### Etorri zinenean euskaraz bazenekien? Eta gazteleraz?

Gazteleraz banekien, Murtzian 9 urtez egon naizelako Zorrotzara etorri baino lehen. Euskarara, ordea, ez nuen ezagutzen eta oraindik ere ez dakit euskaraz hitz egiten.

### Zer da zure herrialdetik gehien duzuna faltan?

Batez ere nire familia. Guraso eta neba-ahizpak urtean behin baino ez ikustea nahiko gogorra izaten da. Familiak gain, ez dut ezer gehiago faltan sumatzen.

### **Hemen taberna batean lan egiten duzu, Errumanian lanbide berbera zeneukan?**

Ez. Nire herrialdean jostun lana egiten nuen. Hala ere, ez da taberna batean lan egiten dudan lehenengo aldia, Murtzian ere ostalari lan egin bainuen.

### **Tabernan Euskal Herrian hain famatuak diren pintxoak egiten dituzue, Errumaniako gastronomia zer ikusirik al du hemengoarekin?**

Osagaien aldetik bai, baina sukaldatzeko modua guztiz desberdina da. Hala ere, nahiz eta janariak desberdinak izan asko gustatzen zait hemengo gastronomia.

### **Zure herrialdeko eta Zorrotzako bizimodua antzekoak dira edo desberdintasun handiak nabaritu dituzu?**

Oso bizimodu desberdina da. Hemen kalean bizitza gehiago dago. Errumanian adibidez, ez da ohikoa koadrilarekin tabernara joatea eguna zelan joan den kontatzeko, hemen, aldiz, egunero edo ia egunero lagunekin egoteko ohitura dago. Bestalde, Euskal Herrian, ospakizun gehiago egiten dituzue. Edozein aitzakia ona da lagunekin edo auzokideekin ospatzeko eta konpartitzeko. Alde horretatik askoz gehiago gustatzen zait hemengo bizimodua, hemengo pertsonak askoz gizarte-koiagoak zarete.

### **Zer da auzoan gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?**

Dudarik gabe gehien gustatzen zaidana jendearen jarrera da. Ezagutzen ditudan pertsona gehienak oso atseginak dira. Eta gutxien



gustatzen zaidanari dagokionez, momentuz, ez daukat ezer esatekorik.

### **Auzoan egiten diren ekintza desberdinetan parte hartzen duzu?**

Momentuz ez. Pixkanaka-pixkanaka zer gauzak egiten diren eta parte hartzeko moduak ezagutzen ari naiz. Zorrotz Morrotz aldiakariaren berririk ez neukan elkarrizketa hau proposatu arte, adibidez. Zorrotzako jaiak izan zirenean berando enteratu nintzen. Baina datorren urteari begira ekintza desberdinetan parte hartzea gustatuko litzaidake.

**El 10 de Fray Juan**

Pintxo askotarikoak, hanburgesak eta sandwichak  
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)  
Aroa onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

**PICOS**  
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7  
Telefonoa: 94 441 64 86

**ROCKET TAVERN**

Plater konbinatuak,  
hanburgesak,  
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

## ASKABIDE KULTUR ELKARTEA

# Auzo eta herri-mugimenduaren eredia 35 urtean zehar

Fray Juan kalean kokatutako lokalak hastapenetik aldarrikatu izan du euskararen erabilera gure auzo eta herriko esparru guztietan, espazio libre baten barruan.



**Testua:** Ibai Barrios

**Argazkiak:** Askabide Kultur Elkarteak

1982ko irailean auzoko hainbat gazte eta ez hain gaztek hasiera eman zioten proiektu honi Fray Juan kaleko lokal batean. 80ko hamarkadaren hasieran bitzako egoera sozio-politiko gaitzaren aurrean eta euskararen normalizazioa xede hartuta, euskal kultura bultzatu eta aldarrikatzeko gune libre bat sortu nahi zuten. 2000. urteko udaran elkarte bihurtuta eta lokal aldaketa medio, aurtengo Zorrotzako jaietan 35. urteurrena ospatu dute txupina botaz. Egun horretan azpimarratu zuten hainbat gauzaren artean, aipatzekoa da proiektua sortu zuten horiei bidalitako mezua, “haien kemen eta borro-

karik gabe ezin izango zutela urteurrenik ospatu” esanez. Urte asko dira, baina askok oraindik diraute.

Hasieratik bertatik, auzoari euskal zein herri kultura garatzeko gune askea eskaini nahi izan dio. Xedeak argiak ziren: alde batetik euskal kultura bultzatzea; eta bestetik herri-kultura, aisia eta jaiaren biziraupena bermatzea. Betiko asmoa auzoko taldeen arteko harremana sendotu eta herri-mugimendua aberastea izan da, lokalaren atak beti irekita daudela aldarrikatuz. Hau da, Askabide Kultur Elkarteak, bere bazkideen kudeaketaren bidez, Zorrotzako auzotarron mesederako gune aske, euskaldun eta plurala izan nahi zuen. Kanpoko inongo diru-laguntzarik



gabe aurrera ateratzea lortu dute eredu autogestionatu baten pean.

Gune plurala dela aipatzean, ideologia edo pentsamendu politikoez haratago urteetan zehar auzoko edozein mugimendu eta ekintzatan parte hartzeko erabateko disposizio eta gertutasunez ari gara. Jaie-tan jartzen duten txosna, Inauterian duten parte hartzea, udazken partean antolatzen duten mikologia erakusketa, kontzertu zein hitzaldiak... horren adibide garbiak dira. Guztiok ditugun defektu eta bertuteen artean, azpimarratzen dute auzoko mugimendu abertzaleak urteetan zehar erakutsitako "irrotasuna eta konstantzia" edozein traba gainditzeko orduan.

Auzo-mugimenduan berebiziko presentzia eta parte hartzea garrantzitsua da bizi ditugun egoera zaileri aurre egiteko. Norbanakoen ideia politikoak alderatuz, auzo plural bat eraikitzea jomugatzat hartzea ezinbestekotzat jotzen dute.

Azken finean, eta kultur elkarte bat izaki, gune kulturalen aldarrikapenen defentsa argia egiten du elkarteak. Gure auzoaren historia eta mugimendua zein den eta izan den ikusita, kaleak eta espazio publikoak betetzeko deialdia egiten dute. Historikoki, betidanik auzo langilea izan denak oraindik gauza asko dituela esateko azpimarratzen dute. Historia idazten jarraitu behar da ezinbestez.



## BAR VENECIA

**Espezialitateak:**

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

**AUPA ATHLETIC**



## FARMAKOTEGIA SUSANA URRITIKOETXEA


Astillero 1. 48013. Zorrotza

Tfnno. 94 441 61 46



**ARRATE JORGE:** Espainiako Jujitsu junior txapelduna

“Txapeldun atera nintzen lehiaketara ia entrenatu gabe heldu nintzen azterketa garaian hartu ninduelako”

A black and white portrait of a young woman, Arrate Jorge, with her hair in a ponytail and sunglasses on her head. She is wearing a white t-shirt under a denim jacket. The background is a dark wall with some papers or posters.

Zuzenbideko ikasketak eta kirola uztartzen ditu Arrate Jorgek. Alaia eta egunero parkean aiton-amonekin paseatzen ikus daitekeen 20 urteko neska dibertigarri eta alaia aurkezten du bere burua. Zorrotzan hasi zen judoan eta Deustun dagoen Bilbao Guruma taldean judoaren antzeko den “Jujitsu” kirolean hasi da orain dela gutxi, baina ez edonola: estreinako urtean Espainiako junior txapeldun atera da eta senior kategorian brontzezko domina pare bat lortu du.

### Zelan hasi zineten judoan?

Txikitan futbolean aritu nahi nuen, baina gurasok ez zidaten uzten, futbola mutilen kirola zela esanez. Familiako kide askok judo egin dute eta horretan hasi nintzen Zorrotzako gimnasialeku batean. Gustatu zitzaidan eta lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen, emaitza onekin gainera. Baina 2012an, lehiaketa batean bizkarrean min hartu nuen eta lesionatu nintzen. Bost urtez entrenatzeari eta lehiatzeari utzi nion, eta beste kirol batean hasi nintzen, defentsa pertsonala egiten hain zuzen ere. laz, kirol berri batean, jujitsuan, hasteko aukera eman zidan judo nire irakaslea izan zenak. Hasieran beldur nion, kolpeak, ostikadak eman behar baitira, baina lehiaketa bat ikustera joan nintzen eta grina piztu zitzaidan, eta hortik aurrera lehiaketa guztietan parte hartzen hasi nintzen.

### Eta zertan datza jujitsua?

Judoan aurkariaren indarraz baliatu behar zara irabazteko. Jujitsua aldiz judo eta karatearen arteko nahasketa bat da. Ezin da kolpe zuzenik eman, boxeoa egiten den bezala, adibidez, baina judoaren teknika jakin beharrekoaz gain, kolpeak ematen hasten da. Bi jujitsu mota daude. Brasildarra eta japoniarra edo tradizionala. Haien artean ezberdintasun handiak ere badira. Brasildarra lurrean egiten da ia gehienetan, eta judoarekin antza handia dauka. Japoniarrean aldiz, kolpeak eman daitezke eta artikulazio guztiak luxatu ditzakezu.

### Zer suposatzen du zuretzat jujitsuak? Zeintzuk dira zure ustez kirol honen baloreak?

Gustukoan dudan zaletasuna. Baloreei dagokienez, aurkariarekiko errespetua nabarmenduko nuke. Kanean erabil daitekeen gauza asko ere ikasten dira. Adibidez neskentzat autodefentsa ikasteko baliagarria delakoan nago.

### Emaitza onak izan dituzu dagoeneko kirol honetan, ezta?

Hogei domina inguru lortu ditut. Asko poztu ninduen aurtengo Espainiako Txapelketan izandako emaitzak, apirilean. Entrenatu gabe joan nintzen, azterketa garaian hartu ninduelako eta junior kategorian (20 urtetik behera) txapeldun atera nintzen Ne-waza atalean eta





**“ Espainiako selekzioaren entrenamendu batzuetara deitu naute, baina momentuz ez naiz nazioartean lehiatu ”**

txapeldunorde borrokan. Eta senior kategorian, hirugarren bietan.

**Ez da makala! Txapelketa horietara heltzeko zelan sailkatu zinen? Edonork har dezake parte?**

Ez. Seniorrera heltzeko puntuak lortu behar dira urtean zehar antolatzen diren kopetan parte hartuz. Kirolari asko gara ligan eta nik ez neukan ia praktikarik, beraz ezustea izan zen izandako emaitza.

**Nazioarteko mailan lehiatu zara?**

Orain dela gutxi hirugarren geratu nintzen emakumeen nazioarteko “Eibarko hiria” judo txapelketan. Espainiako selekzioaren entrenamendu batzuetara deitu naute Madrilera, baina momentuz ez naiz lehiatu.

**Posiblea da jujitsuan edo judoan profesionalki aritzea?**

Bai, baina oso zaila da eta diru asko izan behar da. Madrilera joan behar izan duda-

nean, hotelak eta bidaiak nire patrikatik ordaindu behar izan ditut. Federazioak Espainiako txapelketa absolutura joateko bidaia besterik ez dit ordaindu. Profesionala izateko oso oso ona izan behar da, eta hala ere ez dakit bizitzeko nahikoa aterako den...

**Zer nahiago duzu, txapelketaren tentsioa edo entrenamenduen lasaitasuna eta gozamenak?**

Txapelketa, inolako zalantzarik gabe. Entrenamenduetara oso lasai noa, baina behin tamian sartuta, guztiz ezberdina da. Barruko zerbait pizten da eta motibazio handiagoa da jendaurrean egonda. Dena den, ondo pasatzera noa eta baita teknika berriak probatzera ere. Ez dut irabazteko beharrik sentitzen, eta jende berria ezagutzeko ere baliogarriak izaten zaizkit txapelketak.

**Gaur egun duzun mailari eusteak, zaila izan beharko luke. Aisialdia alboratu behar izan duzu noizbait?**

Entrenamendua aisialdia ere bada niretzat. Azterketa garaietan nahiko nukeena entrenatu ezin dudanez, adibidez abendura arte egunero entrenatzera joateko aprobetxatzen dut. Ez naiz parrandan asko ateratzen, baina lagunekin egoteko denbora ere ateratzen dut.

### Zenbat ordu entrenatzen dituzu astero?

Egunero bi ordu edo ordu eta erdi... Momentuko motibazioaren arabera.

### Noiz konturatu zinen txapelketak irabazteko aukerak zenituela?

Zentzu horretan Jon Arteaga nire entrenatzailea oso garrantzitsua izan dela uste dut. Asko motibatzen nau eta asko laguntzen dit nire barneko onena ateratzen. Galtzen badut, aurkariak nik baino teknika gehiago duelako izan daiteke, baina inoiz ez nik baino gogo handiago ipini duelako tatami gainean.

### Etorkizuneko erronkarik ba al duzu jujitsuan?

Poliki-poliki noa. Oraina bizi dut. Ahalik eta txapelketa gehienetara apuntatzen naiz gogotsu ikusten badut neure burua, baina inolako arronka edo helburu zehatzik gabe.

### Etorkizunean, lehiatzeri utziko bazenio, judoan edo jujitsuan aritzen jarraitzea gustatuko litzazuke, entrenatzen adibidez?

Bai. laz nire entrenatzaileari laguntzen hasi nintzen hiru urteko umeak entrenatzen eta oso esperientzia ona izan zen. Denbora eta motibazioa badaukat, aukera bat izan daiteke, jakina!

### Eta nola animatuko zenuke jujitsu edo judoan probatzeko zalantzatan dagoena? Umeentzat kirol ona dela uste duzu?

Bai, hiru urterekin has daiteke kirol honetan. Psikomotrizitatea eta oreka lantzen da, eta bestearikiko errespetua eta laguntasuna ere ikasten da. Balore hauek txikitatik ikastea oso garrantzitsua dela uste dut.



## LABURREAN

### Kirolari eredugarri bat?

Yahaira Agirre.

### Gustuko duzun beste kirol bat?

Futbola. Athleticzalea naiz.

### Zaletasun gehiagorik?

Jendaurrean ondo hitz egiten dudala esan didate. Konferentzia edo horrelakoetan aritzea gustatzen zait.

### Kirol jantziez aparte, poltsan beti duzun zerbait?

Esparatrapua.

### Gomendatuko zenukeen liburu bat?

Zuzenbideari buruzkoak dira irakurtzen ditudan liburu gehienak. Ez dakit oso gomendagarriak diren... Kar, kar!

### Eta filmeren bat?

Pitch Perfect saga.

### Eta gustuko duzun musika talde edo abeslariren bat?

David Guetta edo musika elektronikoa.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak  
Itsaski-baztegi propioa  
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2  
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30  
www.mesonluna.es



### Diseinu grafikoa:

irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,  
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

[www.amcdiseinua.net](http://www.amcdiseinua.net)

Aurrekontuak eta info +: Tel. 657 732 934 • [aitor@amcdiseinua.net](mailto:aitor@amcdiseinua.net)

## Txanpiak plantxan



### Osagaiak:

Txanpinoiak, olioa, perrexila, gatza, baratxuria, limoia, piperbeltza eta paregabe egiten dituen gure osagaia sekretua

Lehenengoz txanpiak garbituko ditugu eta ondoren zurtoina txapeletik askatuko dugu.

Txanpiak plantxan erreko ditugu 5 minutuz gutxi gora-behera. Behin txanpiak erreta, lehen aipatutako osagaiekin prestatutako saltsarekin nahastuko ditugu eta prest.

On egin!

|                        |        |
|------------------------|--------|
| <b>Zailtasun maila</b> | Erraza |
|------------------------|--------|

**Prezioa:** Igande goizero, dohainik edariarekin

## INDARRA TABERNA



Urtebete eskas da taberna berriro ireki denetik, baina pozik erronka berri horrekin jabeen hitzetan.

Astegunero 11etatik 22:30era zabalik eta ostiral eta larunbatero gauerdiko 2:30era.

Athleticen partida guztiez gozaten dugu Harropari Athletic taldeko kideekin batera, taberna taldearen egoitza baita.

**Abaro estrata, 10**

**48013, Zorrotza**

**Telefonoa: 600 480 830**



# CaixaBank

## Zeu zara izarra

Abaro estrata, 5  
48013 Zorrotza (Bilbo)  
Tel. 94 459 00 90

[www.caixabank.es](http://www.caixabank.es)

## AUTO ESKOLA KAIKU



Zorrotza Kastrexana, 1  
Tlfn: 94 427 88 10

## TABERNA INDARRA



Abaro estrata, 10



Doinua:

Munduko ilunabarra.

*Txapelketaren erronka**omen da norgehiagoka**denek kostala ala kostala**gainditu nahi dute koska**Bastida Maule Irun Durango**herri batek egin topa**kartzelakoa puntu-erantzunak**lehenbizi ofiziokoa**bertsorik bertso saiorik saio**badoa tenkatzen soka**baina dena den nabaria da**hemeren zerk duen inporta**goza dezagun bertsoarekin**gakoa hortxe dago ta. (BIS)*

Asier Urkiza



Nagorek. Baina orain, 2010eko irailean, 28 urte dituela, Artxandan dago Libre irratiko hiru lagunekin, azken bilkura moduko bat antolatuta dute, jakinaren gainean segika dituztela txakurrak, preso hartuko dituztela ziurrenik eta itxi egingo dutela irratia.

**Niket:  
Frenetiko** (La Cupula Music) 2017

15 urte igaro dira Etxebarriko taldea sortu zenetik eta aurten "Frenetiko" lan berria argitaratu dute. Zuzenean jo eta fuego murgilduta ibili ondoren estudioko diska berri bat ateratzeko gogoz zebilen rock eta metalaren artean mugitzen den hirukotea. Guztira hamaika kanta bildu dituzte argitalpen berri honetan, tartean "Saldu" aurreko lan eta honen arteko inpass horretan bideoklip

formatuan atera zuten abestia ere gehitu dutelarik. Aipamen berezia merezi du "Dena eta ezer ez" singela non Eraso! taldeko Sergioren ahots urratuak binomio indartsua lortu duen Txaber abeslariarekin. Hasieratik zeure buruan sartzeko eta ez ateratzeko melodia itsaskorra, nire kasuan behintzat. "Beltzez jantzitako gizonak" edota "Desertu" kanten atmosferak ere aipatzekoak dira non stoner kutsuko riffak entzun daitezkeen.

Hirukote izanda zuzenekoetan argi uzten dute ez dagoela ez tranpa ez kartoirik. Rock eta metalaren bat-batekotasun honetan eskarmentu handiko taldea dugu, urtean poderioz lortutakoa.



**ARIN GRAF, S.L.**  
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.  
48013 ZORROTZA - Bilbo  
Tel/Fax: 94 441 38 23  
info@aringraf.com



1<sup>o</sup> urte

**ZORROTZA F.C.**  
kirolarekin,  
auzoarekin eta  
euskararen alde!



**BAR RUDI**

ATHLETIC CLUB

BILBAO

**MARADONA**  
CLARA CAMPOAMOR 2

**Zure iritzia jakin nahi dugu.** Bidaliguzu zure artikulua [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com) helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



## Gure ikuspegia

Estreinako artikulua honetan, udal legealdiaren erdialdean gaudela aprobetxatuz, Zorrotzako Eusko Alderdi Jeltzaleko Uri Buru Batzarreko kideoi, aproposa iruditu zaigu legealdiaren errepasso labur bat egitea. Badakigu iritziak anitzak direla eta gure helburua ez da polemika antzurik sortaraztea, baizik eta ikuspegi zintzotik gure iritzia emotea.

Lehenengo eta behin Zorrotzako EAJko Uri Buru Batzarretik biziki eskertu nahi diegu Zorrotz Morrotz aldizkariko ardura-duneei lerro batzuen bitartez geure iritzia aldizkarian plazaratzeko emon diguten aukera. Egiazki eskertuta gaude aniztasuna elikatzen duen keinu honengatik. Bestetik, zoriandu behar egin dira gure hizkuntzan murgiltzeko tresna den aldizkari hau Zorrotzan lantzeagatik.

Estreinako artikulua honetan, udal legealdiaren erdialdean gaudela aprobetxatuz, aproposa iruditu zaigu legealdiaren errepasso labur bat egitea. Badakigu iritziak anitzak direla eta gure helburua ez da polemika antzurik sortaraztea, baizik eta ikuspegi zintzotik gure iritzia emotea.

Gure aburuz nabarmenak dira Udalak azkenengo urteetan auzoan egindako inbertsioak, baina aldi berean badakigu oraindik behar asko daudela asetu gabe. IRISGARRITASUNAren ikuspegitik, izuga-

ria izan da Zazpi Landak bizi izandako eraldaketa. Horrelako prestakuntzak dituzten bi igogailu dohainik (askotan horri ez zaio garrantzirik ematen) izatea ez da gauza makala. Bestetik FRONTOIA ESTALTZEA (zintzoki esan dezakegu biziki aktiboak izan ginela UBB honetatik gaur eguneko alkatea hautagaia zeneko bileretan hori lortu ahal izateko) lorpen izugarria izan da, are gehiago bere kostu ekonomikoa kontuan izanda. Era berean frontoiaren atzealdeko LOKALAK luxu bat dira auzoan dauden talde ezberdinen elkarkidetzarako, eta hori ukatzen duena ez da zintzoki ari.

Baina lorpenekin batera, ezin ditugu ahaztu egondako ezbeharrak. FEVEren lubakia pairatzeaz kokoteraino gaude. Badakigu konponbidea oso zaila dela, era honetan EAJk Estatuko aurrekontuen negoziazioan aritzearen truke zerbait lortzen badugu guztion onurarako, ordaindu beharreko peajea dela uste dugu. Bestetik, La Landako tragediak mahai gainean jarri zuen berriro ere auzoak duen arazorik larriena. Argi daukagu konponbide integrala behar duela, eta batez ere auzotarren batasuna gero hipokresiarik ez egoteko.

Artikulu hau erreflexio labur bat besterik ez da, eta aitortu beharra dago lorpen hauetan mobilizazioak funtsezkoak izan direla, baina aldi berean aldarrikatu nahi genuke askotan ez dugula nahiko baloratzten, alderdikieran edota interes partikularretan erortzen garelako, Udalaren partetik egiten den lana. Beraz, guztion artean modu zintzoan lan egin dezagun auzoaren onurarako, bakoitzak bere esparrutik baina beti ere errespetua eta elkarkidetzat datz izanik.

*Zorrotzako Euzko Alderdi Jeltzaleko  
Uri Buru Batzarra*

# Euskararen erabilera biderkatu ahal dugu auzoan

Proposamena ez da berria, bai erraza, merkea eta eraginkorra: auzoko negozio, denda eta tabernetan euskal hiztunak daudela iragartzea

Zorrotzan bizi garen euskaldun askori eguneroko harremanetan euskarak duen presentzia urriak kezka sortzen digu.

Izan ere, nabaria da auzoko kaleetan entzuten den euskara apurra ez datorrela bat auzoko euskaldun hiztunon zerbakiarekin. Egoera hau are kezagarriagoa da aintzat harturik euskara dakien hiztun kopurua urte urte gorantz doala.

Honen harira, nire ustez badagoe neurri soil, erraza eta merkea euskararen erabilera sustatzeko, komertzioetan behintzat. Neurria ez da berria, aspaldi abiatu baitzen gure artean, baina nik uste dut eraginkorra dela eta errepikatzea merezi duela; alegia, auzoko negozio, denda eta tabernetan euskal hiztunak daudela iragartzea.

Ea Koordinakundeko taldeek, Euskal Txokotik hasita, aintzat hartzen duten proposamena eta abian jartzen duten, horretarako materiala eskuragarri dago eta.

*Karlos Rodriguez*

## bertso afaria



### ABENDUAK 1, OSTIRALA

### Arsenio jatetxea

### 20:00etan trikipoteoa Madness tabernatik

#### Menua:

Txorizo eta saltxitxoi iberikoak,  
Txanpiñoiak baratxuriekien eta Etxeko entsalada

#### 2. platera (izena ematean aukeratzeko):

Makailua piperradarekin edo  
Eskalope Cordon-Bleu iberikoarekin

Azkenburukoa, ogia, urteko ardoa eta kafea

15€

Izena emateko\* eta info +: **aek euskaltegia**

**944 414 920 / 663 080 976**

(Azaroaren 23a baino lehen)

\*Izena ematean ordaindu beharko da, eskuan edo transferentzia bidez

Miren Amuriza

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babeslea:



Oihana Bartra

## EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Euskaldunak elebidunak gara eta horrek eragina dauka hitz generizatuak erabiltzen ditugun moduan: gaztelaniaz maskulinoa dena euskaraz generorik gabekotzat hartzeko zailtasunak ditugu, dirudienez. Honen adibide argia: familiakideak izendatzeko modua. Gaztekeraz “padre+madre=padres” denez, eta nahiz eta euskaraz erabilpen sexista ez erabiltzeko formula izan, gaztekerazko maskulinoa erabiltzen jarraitzen dugu askotan:

Zure aitak etorriko dira? Zure gurasoak etorriko dira? / Zuen aita-amak etorriko dira? Noski, hau ondo legoke solaskidearen gura-

soak bi gizon balira, baina hau ez da gehienetan “aitak” erabiltzeko jendeak buruan duen ideia:

Gaztekeraz “¿Cuántos hijos tienes?” maiz erabiltzen dugu seme-alaba kopuruari buruz galdetzeko. Euskaraz, hauxe izango litzateke egokia: Zenbat seme-alaba dituzu? / Zenbat ume dituzu? Berdin gertatzen zaigu “abuelos” hitzaren erabilerekin aitona eta amona batera izendatzeko erabiltzen dugunean: Zure aitonek oparitu dizute? > Zure aitona-amonek oparitu dizute?

Oro har, hitz elkartuak eratzeko, silaba gutxiago daukan hitza aurrean doa eta silaba kopuru berbera daukatenen artean, zuk zeuk aukeratu!

## SALAKETA ARGAZKIA



### Itsadarra eta garbiketa

Zirgarien kaian arrantzan egoten diren lagunengandik argazki hau jaso dugu: udal garbiketako taldeko makinek, paseoa ekortzean, zikinkeria kentzeko eta zorua garbitzeko erabiltzen duten likidoa zuzenean itsadarrera botatzen dute.

Argazkian ikusten diren burbuilak garbitzaile kimiko horietakoak dira. Hau gutxi balitz, bere jarrera gaitzesten dutenei barre egiten dietela adierazi digute.

Iragar zaitez

# ZM

ZORROTZ MORROTZ  
aldizkarian!

Euskara sustatu  
Zorrotzan!



Tarifak eta informazioa: [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

# 2 BETAURREKO

GERTURAKO ZEIN  
URRUNERAKO

# 95€

C/ ESTRADA DE ABARO, 5 | 944 27 40 80

ibarretaluxury  
OPTICA

# Abian da Auzoka, komunitatea egiteko gunea

Zorrotzan komunitate zentro bat sortzea gure amets-zerrendan aspaldi zirriborratu genuen ideia zen. Noizbehinka komunitate-ekimenak garatzeko espazioak bisitatu ditugu, non gizarte erakunde batek kudeatu arren, instituzioak proiektua bere egin duen.

Gure Lurran hasieran ametsak direnak egikari bihurtzen saiatzen gara. Hartara, 2015 urtean, auzoaren egoeraren diagnostia idazten hilabete batzuk eman eta gero, "Zorrotzan komunitate zentro bat sortzeko proiektua" aurkeztu genuen, bai Taldeen Koordinakundearen bai Udalean. Untziola kaleko erretirodunen lokal ohia proposatu genuen proiektu horretarako. Ideia begi onez hartu zen alde bietatik baina azkenean baztertua izan zen, Udalaren lehen-tasuna bestelakoa baitzen, alegia, Zorrotzako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak kokagune horretara mugitzea, bere funtzioa garatzeko espazio handiagoa behar zutelakoan.

Geroago, 2017an, frontoia estaltzearekin batera lokalen eraberritze eta handitzea lortu zenean, komunitate zentroa sortzeko proiektua berreskuratu genuen eta, egun, errealitate bat da.

## Zer da Auzoka?

Gizartearen (erakundearen eta talde informalekin) ekimenei eta komunitatearen ongizatearen susta-



zen duten baliabide teknikoei irekita dagoen zentroa da. Momentuz, zentroa Zorrotzako hainbat elkarte erabiltzen ari dira, baita auzoko musika-banda batzuk ere. Alabaina, jomuga gero eta talde gehiagok erabiltzea eta erabilerara desberdinak izatea da, hala nola, antzerki soziala, hezkuntza errefortzua, formazio-espazioak, taldekako lanak egiteko gelak...

## Abenduaren 15etik aurrera kontaktuko dizugu

Oraindik martxan jartzeko prozesuan gabiltza baina abenduaren 15ean benetako hasiera emango diogu proiektuari, 18:00etatik aurrera antolatutako inaugurazioarekin. Halaber, hurrengo astean zehar (abenduaren 18tik 22ra) ateak inoiz baino irekiago izango ditugu. Pasa eta kontaktuko dizugu!



**ZORROTZA  
HAZI  
ARAZI**



**ZORROTZAKO BATZOKIA**  
Erreserbetarako telefona: 94 465 46 15  
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



### Andoni

Zaila da. Autobusak elkartzen direnean apenas dago lekurik, beraz, zaila gehiago egotea. Hasteko, FEVE geltokia lurperatu behar da trafikoa arintzeko.



### Begoña

Igogailurik ez dut hartzen askotan matxuratzen delako eta beldurra diot. Autobusen maiztasuna ere txarra da. Igotzeko dohainik izango balitz sikiera...

## Zazpi Landako garraioa eta irisgarritasuna

Nola hobetu daiteke?

Aitor Marín



### Amagoia

Zazpi Landako jendea oro har ez da gaztea, eta ez da soilik Zorrotzara jaisteko. Bizkaibus edo tren hartzeko birritan ordaindu edo oinez igo etajaisi behar da. Zorrotza eta Zazpi Landa arteko Bilbobusak dohainik izan beharko luke



### Mari

Goiko igogailua ez dut inoiz erabiltzen deserosoa iruditzen zaidalako. Zorrotzatik Zazpi Landara igotzeko autobusak dohainik izatea irtenbide ona litzateke.



### Javi

Igogailuak ondo daude, baina goraino heltzen den bakararra, Bilbobusa da. Dohainik izan beharko luke baina igotzeko soilik.

**Jai-Alai**  
kafetegia



Abaro estrata, 12  
94 490 12 59



**Vía gráfica**

viagraficazorrotza@gmail.com

**Disenya**



**Taberna**  
**AITOR**

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza  
Tel. 94 482 07 96

Abenduaren 1etik urtarrilaren 31ra

[www.galdeketauh.eus](http://www.galdeketauh.eus)

# Galde Ketauh



SARIAK

ZOZKETAK

GAZTE LEHIAKETA

bestepagatu!



Laugarren edizioa martxan dago. aplikazioa jaitsi eta hasi jolastean!

Batasuna



antzerkiaz



Laguntzak



## iKasi Mi Kasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,  
ikastetxe publikoetan eta  
Zorrotzatik irten gabe



Pisada etxaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo  
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75  
✉ [sietecampas@gmail.com](mailto:sietecampas@gmail.com)



Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo  
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21  
✉ [014159aa@hezkuntza.net](mailto:014159aa@hezkuntza.net)



San Miguel azunera, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo  
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374  
☎ 94 439 97 41  
✉ [015078aa@hezkuntza.net](mailto:015078aa@hezkuntza.net)  
[www.leszorrotzabih.izozkuntza.net](http://www.leszorrotzabih.izozkuntza.net)



# DARABILBO

AISIALDIA EUSKARAZ ETA DOAN

ZUK  
ZEUK

AUZOAN, EUSKALTEGIAN,  
EDOTA LAGUNARTEAN  
DARABILBOKO EKINTZAREN  
BAT ANTOLATU NAHI?  
DEITU ETA DIDA BATEAN  
LOTUKO DUGU  
663 089 095

SUKALDARITZA TAILERRAK,  
IBILALDI KULTURALAK,  
BILBON BIZIKLETAZ,  
MUSEOAK,  
BERTSO GOSARTAK,  
DASTAKETAK,  
EUSKAL KULTURA, FILMAK  
MODA, JOSKINTZA,  
ARGAZKILARITZA, KERAMIKA  
TEKNOLOGIA BERRIAK,  
MINTZATU APP...

B

Bilbao

WWW.DARABILBO.EUS

